

Zizelkan

Damutu naiz milatan baina han gelditu zen hanka, sartuta. Eskultoreak obra ezarri nahi zuen Santa Klaran, ezkerretara Chillida, eskuinetara Oteiza eta erdian berea, arraunlariaren omenez. Berez eskultura den Santa Klararen gainean beste eskultura bat. Ez nuen ezetz borobila, zegokion bezala, esateko kemenik izan, dirurik eza jarri nion aitzakia. Arerio politikoez berehalakoan harrapatu ninduten, ez zintzo jokatzuz baina. Eskultura jartzearen alde agertu ziren guztiak, hemendik Fisterrara bitarteko estropalari talde guztiak eta Alde Zaharreko soziedade, elizak ez dakit, guztiak. Zein ez? *Kaja de ahorrosa*, aldundia eta kristo. Bakarra nintzen, hala zioten, arraunlarietara omenez egin nahi ez niena, haien garrantziaren oroimenaren aztarnarik nahi ez nuena, proskrito madarikatua.

Futbolekoak dira besteak, Anoetako atarian dauden bi horiena. Bata "kirol indarkeriarik ezaren aldeko sinbolo gisa Donostiako hiriari" opari egindakoa, gaur Aitor Zabaletaren omenezko zat hartzen dena, Partidu Popularreko kirol zinegotziak, kotxea bazterrean aparkatzen duenak bezala, inori ezer esan gabe ezarri zuen. Ez zen nire ardurara eta isildu egin nintzen. Isildu nintzen bezala Alberto Ormaetxearen edo Rea-



Ramon Etxezarreta

PSE-EE-KO KIDEA

@retxezarreta

Bakea, bizikidetzaz, adiskidetzaz, biolentziaren amaiera eta behin betirako ukazioa. Ez dute ulertu zenbaitzuei metafora mingarria gertatu izana. Zail egin zaie ulertzea zergatik ez zaien ekimena onartu

lak irabazitako txapelketen oroimenezkoaren kasuan. Inolako eztabaidarako aukerarik gabe orduan ere eta, Kutzak, gure kultur gidari gorenak diruz lagundua. A zer-nolako bi zuldar hiriaren

azaletan. Intentzio onenekoak izango dira pieza biak, baina bai arbitrarioak eta itsusiak. Artistei aukera berdintasuna eskaini izan bazitzaie, oroimenek askoz hobera egingo zuketean luzez, hiriaren eta guztion mesederako.

Baionan Roland Barthes parkean, auskalo non eta zertan buka dezakeen, ezarri diguten *Arbolaren Egia*-k eragin dizkit aurreko oroitzak eta burutazioak. Asmo on deklaratuko lana da, Koldobika Jauregiren aldetik eta Baionako udal ordezkariaren politikaren aldetik. Bakea, bizikidetzaz, adiskidetzaz, biolentziaren amaiera eta behin betirako ukazioa. Ez dute ulertu zenbaitzuei metafora mingarria gertatu izana. Zail egin zaie ulertzea zergatik ez zaien ekimena onartu.

Asmo herritar legez, proposamena, gutxi asko, batzuenak bakarrik izan ordez guztionak izateko, eztabaida publiko bat eragin balitz, proposamena eta kokapena erabakitzeko, lehiaketa publiko bat egon balitz aukera berdintasuneko artista aukeratu ahal izateko, eta asmo onak baino prozedura zuzen eta justu baten aukera egin izan balitz, izan zitekeen eskultura ezarri dena baino askoz itsusiagoa. Baina inoiz izango ez litzatekeena da gure praktika okerren metafora. Eta dena. ■

Ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)